

## EUSKERAZAINTZA DONEMILIANE'N

Aspaldion zabal dabil Ikasketarako osterak egitea. Ikasturtea amaitzen danean edo ikasbide osoaren erdira eltzen diranean edo ikasketen azken-agiria lortzen dabenean, gure ikasleak mailla guztietan egiten dabez olako osterak. Eta ondo dago, baiña izena daukena bera izan bear leuke izanak, eta sarritan ez da ori izaten, ikasi barik jolas-aldi batzuk egin izaten da azkenean lortzen dabena. Eta jolas-aldi orreik beti ez dira izaten izan bear daben lakoak.

Latzaga euskerazain argiak aurkeztu eban ibillaldi au egiteko asmoa eta bat-batean onartu eben beste euskerazain guztiak, ibillaldia zala-

ko be bai, baiña batez be elburuak ziranak ziralako.

Zeintzuk ziran ba, txango onen elburuak?

—Errioxa'tarren eta euskaldunen arteko artu-emonak asi eta ugaritu.


—Euskerazko lenengo esaldiak aztertu eta agertu ziran lekua ikertu.

—Euskerazaintza'ren barria zabaldu inguruetara.

Euskalerriko Eleizan Donemiliane'ko lekaide-etxeak izan dauan garrantzia gogoratu eta kontuan artu.

Irailaren 21n. Egunean egin gendun txango ori. Donosti'tik urten zan giputzak bete eben tarranta, Gasteiz'en artu ebezan Umandi adiskidea ta Iankidea izan zanaren arrebea eta beste batzuk. Bizkaitarrak curen berebilletan joan ziran eta guztiok alkartu giñan Beko Donemiliane'ren lekaide-etxean.

Etxe onetan dan eleizatxu baten ospatu gendun Eukaristia, Jaunaren aurrean pozez eta euskal-giroan alkartuta. Gero lekaidetxe aretan diran ikusgarriak ikusi genduzan eta ondoren, ekintza-aretoan etxe aretako nagusiaren agurra entzun ondoren, Euskerazaintza'ren lendakariak egin eban itzaldi bat eta gauza gogoangarri batzuk gogoratu euskuzan: Euskaldunen eta Errioxa'tarren jatorria, sinismen-arloko artu-emonak eta, tamalez banatzen gaituen zertzeladak: Jabetzadun Alkarte bitan banatuak izatea, izkuntza ezbaridiñak (euskerea eta gaztelerea) izatea eta errigintza edo politikaren edestia: Aldi baten karlatarren



ARO' KO LOPEZ'tar URRAKA ANDEREA'reir ILLOBIA

bideak batu ginduzan baiña gero, 36'ko guda-ostean batez be, abertzaletasunaren eta karlatarren artean izan zan burrukea. Karlatarrak euskalzaleak ziran, lege-zarraren bidetik, baiña abertzaleak, Arana'tar Sabin'en aldetik, jokabide ori alboratu eta bide barri jatorra artu eben, aberria aintzat artzeko bidea, eta bide ori karlatar askok ez ebe onartu.

Goiko Donemiliane'ra igon gendun gero, eta an diran gauza ikusgarriak ikusi eta antxe idatzi zirala euskeraz lenengo esaldiak gogoratu ondoren, bertan illobiratuta dagozan Naparroa'ko Erregeen alde otoitz egin ondoren, inguruko jatetxe batera joan giñan, pozez senide-arteko bazkaria egiteko. Gogoz entzun geuntsen iru bertsolariri: Paulin Solozabal, Murua eta Asier Legarreta.

Bazkal-ostean Kañas'eko Lekaide-etxera joan giñan, Lekaide-etxe onek artu-emon bereiziak izan dauz edestian bizkaitarrakaz. Antxe bagiratu geuntsan Bizkai'ko Jaunaren alabea zanaren irudiak dauak aurpegi bardinba-koari, argazkiak egin be ugari. Eta etxe aretako nagusi dan Lekaine euskalduna agurtu ondoren, etorri giñan bideetatik barriro geure etxeetara biurtu giñan.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK